

2002tik, urteko 485 milioi eurotik gora ordaindu ditu interesetan

EROSKI-K 31 MILIOI EURO ORDAINDU DIZKIE INTERESETAN MENDEKO EKARPEN ETA OBLIGAZIOETAN INBERTITU DUTENEI

- **Gaur, urtarrilak 31, ordainduko zaie Mendeko Finantza Ekarpenei jabeei, eta otsailaren 1ean, berriz, Mendeko Obligazioen jabeei**
- **2002an MFEetan inbertitu zuenak bere inbertsioaren %102,6 jaso du interesetan, eta %111,7, Mendeko Obligazioekin trukatu bazuen**
- **Aurtengo urteko interesak %5,535ean gelditu dira finkatuta 2002an eta 2004an jaulkitako MFEetarako eta Mendeko Obligazioetarako, eta %5,035ean 2007ko jaulkipenerako**

Elorrio, 2025eko urtarrilaren 31.- [EROSKI](#)k, gaur, urtarrilak 31, abonatu ditu Mendeko Finantza Ekarpenei dagozkien urteko interesak, %6,553ko interes tasan 2002ko eta 2004ko jaulkipenatarako, eta %6,053tan 2007korako. Otsailak 1ean, era berean, EROSKIk Mendeko Obligazioen urteko interesak abonatu ditu, %6,553ko tasan. Guztira, 31 milioi euro abonatu dizkie EROSKIk interesetan inbertsio tituluak dituztenei.

EROSKIk MFEen lehen jaulkipena egin zuenetik (2002an), kooperatibak zuzen ordaindu dizkie urteko interesak inbertsiogileei; dagoeneko, 485 milioi euro guztira. MFEak eta Mendeko Obligazioak ordaintzeko, zeina ez baita kooperatibaren emaitza ekonomikoen araberakoa, erreferentzia gisa Euriborra gehi hiru puntu hartzen du MFEen 2002ko eta 2004ko jaulkipenatarako eta Mendeko Obligazioetarako eta %2,5eko diferentziala MFEen 2007ko jaulkipenerako.

Abonu horren bitartez, MFEa 2002an hartu zuen inbertsiogile batek dagoeneko hasierako inbertsioaren %102,6 jaso du interesetan, eta %111,7 iraugitzen diren Mendeko Obligazioen trukea egin bazuen 2016an. MFEen 2004ko inbertsiogile batek,

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
PATRICIA MARTÍN SANCHIDRIÁN

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

berriz, %90,2 hartu du dagoeneko interesetan, eta, trukea egin bazuen, %99,2; eta 2007ko batek bere inbertsioaren %64,4 jaso du, edo %72,5 trukea egin bazuen.

2025. urterako, interes tasa %5,535ean geldituko da (%2,535+ %3ko diferentziala) MFEen 2002ko eta 2004ko jaulkipenatarako eta Mendeko Obligazioetarako, eta %5,035an (%2,535 + %2,5eko diferentziala) 2007korako, eta guztiak abonatu dira datorren urtean.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
PATRICIA MARTÍN SANCHIDRIÁN

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA**CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)